

Joan Mari Irigoien

"OLERKIAK"

ALE HONETAN JOAN MARI IRIGOIENEK, ARGITARATU BERRI DUEN *HAUTSA ETA MAITEMINA* IZENEKO LIBURUTIK, HAMAIKA POEMA AUKERATU DIZKIGU.

Hitza,  
     birao bat bezala jaurtia,  
 hitza bete hortz,  
 betiko esku zuriak  
     karezta ez dezaten, ez ehortz.

Bagindoazen, bagindoazen  
 denboratik ihesi,  
 baina denborak  
     denborak zuen hesi.

\* \* \*

Harriari beha,  
 harriturik,  
 ni neu ere  
     harri bihurturik.

Mila koloretako tximeletak  
     udalehenaren adatsean pausa:  
 hautsaren ederra,  
     ederraren hautsa!

\* \* \*

Nirea da maitea  
eta ni harena,  
lilizainarena  
KANTARIK EDERRENA

Piztu du esku jakintsuak  
zitarak ezkutatzen zuen  
soin gabeko soina,  
goi-soinuen dirdira.

Heldu da lilizaina,  
ekin dio dantzari,  
jira eta bira.

Hegaldi berean joan dira.

Haragia haragian kiribilduz,  
hezurak hezurretan,  
zorabioak hartuko gaitu,  
hodeien zaldiko-maldikoetan  
mugak mugekin dira nahastuko,  
argiak itzaliko,  
gauaren egun handian.

Ezin ukitu nuen hegazti zuriak  
ukitu ninduen behin,  
hunkitzen nau oraindik.

\*

Uhinen joan-etorri ordugabeetan,  
atseginaren orratz handiak  
oinazearen orratz are handiagoa estaltzen...

\*

Uharte urruneko haurra,  
uraren bihotzean ostari,  
harean jostari.

Zatoz.

\* \*

Argi zuri,  
begininian zauri,  
lili itzalien orduan.

Ukoz bada ere, izan,  
nola isilean hala deiadarka,  
hitz ezin esana esan,  
zuzen ezinik zeharka,  
zure gauak dezan enea besarka.

---

*R e s e ñ a* — *Once son los poemas que, para esta ocasión, Joan Mari Irigoien ha elegido de su reciente publicación "Hautsa eta Maitemina".*